



**AKORDIOAK, 2014ko apirilaren 15ekoak, 2014ko otsailaren 24ko (otsailaren 25eko EHAA, 38 zk.) Ebazpenaz deitutako Udaltzaingoaren behin-behineko agenteen lan-poltsa sortzeko hautaketa prozeduraren Epaimahai kalifikatzailearena.**

Goian aipatutako Epaimahai kalifikatzailearen idazkariak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 27.5 artikuluan ezarritakoa kontuan izanik, ondorengo

### ZIURTATZEN DU

2014ko apirilaren 15ean izandako bileran, aipatutako Epaimahaiak ondorengo Erabakiak hartu dituela:

**LEHENA.-** 16087061 NAN zenbakia duen izangaiak, 2.1.d) oinarrian ezarritako baldintza ez betetzeagatik bazter geratu izanaren aurka jarritako erreklamazioa atzera botatzea, Laneko Medikuntza Arloko buruak egindako jakinarazpenean oinarriturik.

**BIGARRENA.-** 78916419 NAN zenbakia duen izangaiak, hirugarren probako bigarren ariketan (Bizkortasun testa) lortutako emaitzaren aurka jarritako erreklamazioa atzera botatzea, pertsona horrek esandako ariketan lortutako erregistroak egiaztatu ondoren, eta ondorioz 6,00ko puntuazioa mantentzea.

**HIRUGARRENA.-** 14264187 NAN zenbakia duen izangaiak, hirugarren probako hirugarren ariketan (1.000 metroko lasterketa) lortutako emaitzaren aurka jarritako erreklamazioa atzera botatzea, pertsona horrek esandako ariketan lortutako erregistroak egiaztatu ondoren, eta ondorioz 3,00ko puntuazioa mantentzea.

**LAUGARRENA.-** Ondoren agertzen diren NAN zenbakietako izangaiek, euskararen ezagutza-mailaren balorazioa dela-eta, aurkeztutako erreklamazioak onestea, pertsona horiek entregatutako dokumentazioa egiaztatu ondoren:

NAN	Egindako balorazioa	Zuzendutako balorazioa
44678250	0,000	10,000
45622786	0,000	5,000
45754953	0,000	10,000
78945034	0,000	10,000
78937670	5,000	10,000
78954880	0,000	10,000



**BOSGARRENA.-** Oposizioa gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratzea, proba bakoitzean lortutako puntuazioa adieraziz, oposizioan lortutako gehieneko puntuaziotik gutxienerako hurrenkeran eta euskararen merezimendu balorazioa adieraziz, honekin batera doan Eranskinean agertzen denaren arabera.

**SEIGARRENA.-** Akordio hauek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako web orrialdean argitaratzea.

Akordio hauen aurka, administrazio bidea agortzen ez dutena, interesdunek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariari gora bidezko errekurtsua jarri ahal izango diote, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabete bateko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 114 artikuluan eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Errekurtso hori egintza eman duen organoari berari edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariari jarri ahal izango zaio.

Aurkeztutako Errekurtsoen ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da ebazpena emateko eskudun organoko erregistroan jasotzen denetik hasita. Ebazpena eman gabeko epe hau igarota, errekurtsua gaitzetsizat joko da. Gora bidezko errekurtsuaren ebazpenaren aurka ez da izango beste administrazio errekurtsorik, 30/92 Legearen 118.1 artikuluan ezarritako kasuetako berraztertze ohiz kanpokoa izan ezik.

Arkautin, 2014ko apirilaren 15ean.

Izpta.: **Epaimahai kalifikatzailearen idazkaria**

